

FAMILIA turismoa

EUSKADI BASQUE COUNTRY

turismoa.euskadi.eus/eu/



- Bizkaia
- Gipuzkoa
- Álava/Araba

Jaitsi Euskadi familian gida



ONGI ETORRI EUSKADIRA

Familia bidaiazaletara erabat moldatutako helmuga honetan elkarrekin gozatu ahal izango duzue bertako hainbat eta hainbat txoko eta jarduerak erakargarri.

Kostaldea eta bertako iragan arrantza-lea baserriz estalitako mendi berdeekin eta Arabako Errioxako mahastiekin lotzen dituen paisaia anitza ezagutuko duzue. Bere hizkuntza duen milaka urteko kultura aurkituko duzue, eta bertako naturan egin ahal izango dituzuen abenturazko jarduerak gure faunara, flora eta bizimodura hurbilduko zaituztete. Adin guztietarako kultura eta aisialdi proposamenak ditugu, bai eta izen handiko gastronomia ere.

Abentura eder bat duzue zain!

KALITATEZKO ESKAINTZA FAMILIA GUZTIARENTZAT

Euskadik eskaintza zabala, egokia eta kalitatezkoa jartzen du familia bidaiazaleen eskura.

Mapa honetan Euskadi Familia Turismo klubeko kide diren eta, kalitatearen eta segurtasunaren arloko balaintza batzuk betez, haurrak dituzten familietara moldatutako zerbitzuak eskaintzen dituzten 229 enpresa aurkituko dituzue.

Zuen bidaiari premietara eta gustuetara egokitzen den eta arduraz aukeratu den enpresa-sorta da: ostatuak, jatetxeak, museoak, natura ezagutzeko zentroak, abentura-parkeak, bisita gidatuak, lantegi didaktikoak, turismo aktiborako enpresak, upeltegiak, etab.



EUSKADI GOBIERNO VASCO

BAZQUE COUNTRY

Vitoria-Gasteiz

Donostia/San Sebastián



